# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia | Iruña, 2015eko irailaren 17a | 11. ZK.


**A U R K I B I D E A**


E SAILA:

**Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten baitizkie emakumeen aurkako indarkeriaren edo/eta genero indarkeriaren biktima guztiei. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, jakiteko zein den Nafarroako Gobernuaren iritzia “La Protectora SAU”-k sustaturiko hiltegiaren kokapenari buruz. Javier García Jiménez jaunak egin du (3. or.).

—Galdera, adingabekoei eginiko sexu erasoak areagotu izanari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egina (3. or.).

—Galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Aragoi ibaiari dagokionez. Alberto Catalán Higueras jaunak egina (4. or.).

—Galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Odrón ibaiari dagokionez. Alberto Catalán Higueras jaunak egina (5. or.).

—Galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Ebro ibaiari dagokionez. Alberto Catalán Higueras jaunak egina (6. or.).

—Galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Alhama ibaiari dagokionez. Alberto Catalán Higueras jaunak egina (7. or.).

—Galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Arga ibaiari dagokionez. Alberto Catalán Higueras jaunak egina (8. or.).

—Galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Ega ibaiari dagokionez. Alberto Catalán Higueras jaunak egina (9. or.).

—Galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Linares ibaiari dagokionez. Alberto Catalán Higueras jaunak egina (10. or.).

**E saila:**
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

# Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten baitizkie emakumeen aurkako indarkeriaren edo/eta genero indarkeriaren biktima guztiei.

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2015eko irailaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten dizkie biktima guztiei eta bere arbuio osoa adierazten du emakumeen kontrako indarkeria-mota ororen aitzinean.

2. Nafarroako Parlamentuak bereziki gogoan ditu erraildako emakume guztiak.

3. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra erdietsi beharra dagoela, indarkeria-mota ororen adierazpenak amaiarazi ahal izateko, eta konpromisoa hartzen du elkarrekiko errespetuan oinarritutako berdintasunezko harremanen defentsan lan egiteko.

4. Nafarroako Parlamentuak elkarretaratzea eginen du bere egoitzaren aurrean, 12:00etan, genero-indarkeriaren biktima bat dagoen bakoitzean, gisa horretako ekintzekiko gaitzespenaren erakusgarri eta gizarte bidezkoago eta berdintasunezkoago bat eraiki beharra aldarrikatzeko”

Iruñean, 2015eko irailaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, jakiteko zein den Nafarroako Gobernuaren iritzia “La Protectora SAU”-k sustaturiko hiltegiaren kokapenari buruz.

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zein den Nafarroako Gobernuaren iritzia “La Protectora SAU”-k sustaturiko hiltegiaren kokapenari buruz.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer jarrera dauka La Protectora, S.A.k sustatutako hiltegiaren kokalekuari dagokionez? Baloratu al duzue beste kokatze-aukerarik?

Iruñean, 2015eko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

# Galdera, adingabekoei eginiko sexu erasoak areagotu izanari buruzkoa.

*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, adingabekoei eginiko sexu erasoak areagotu izanari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Fiskaltzaren 2014ko oroitidazkiaren arabera, Nafarroan bortxaketak 2013an 6 izatetik 2014an 22 izatera igaro dira. Adingabeen aurkako sexu-erasoak ere areagotu dira.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ba al du inolako neurririk hartzeko asmorik, era horretako erasoak murrizteko xedez?

Iruñean, 2015eko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

---

## Galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Aragoi ibaiari dagokionez.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Aragoi ibaiari dagokionez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Alberto Catalán Higueras jaunak, Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2014ko azken hilabeteetan eta aurtengo lehenengoetan, euri-jasa luzeen ondorioz, uholdeak gertatu ziren Ebro, Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares eta Odrón ibaien arroetan.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak –arloko erakunde eskudunak– orain dela zenbait aste informatu zuen bukatuta zeudela uholdeek eragindako kalteak konpontzeko larrialdi-obrak, zeinek 2,5 milioi euroko inbertsioa egiten baitzuten Nafarroan, 48 esku-hartze eginda.

Nafarroako Gobernuak hiru foru agindu eman zituen –2015eko uztailaren 22ko 271, 272 eta 273–, zeinen bidez ezarri baitziren euste-dikeetan, eta ureztatze-azpiegituretan eragindako kalteak presaz eta geroratu gabe konpontzeko ohiz kanpoko laguntzak emateko arauak.

Hori dela-eta, Aragoi ibaiari dagokionez, ondoko galdera hauek egin nahi dizkiogu Nafarroako Gobernuari:

1.- Zer udalek, ureztatze-sindikatuk edo/eta ureztatzaile-elkartek eskatu dituzte gertatutako kalteengatiko laguntzak?

2.- Zer jarduketa-motatarako eta zer zenbatekorengatik eskatu dira laguntzak?

3.- Nekazariek eta abeltzainek Gobernuari jakinarazitako kalteen kopurua, zenbatekoa eta herriak.

Corellan, 2015eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

---

# Galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Odrón ibaiari dagokionez.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Odrón ibaiari dagokionez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Alberto Catalán Higueras jaunak, Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2014ko azken hilabeteetan eta aurtengo lehenengoetan, euri-jasa luzeen ondorioz, uholdeak gertatu ziren Ebro, Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares eta Odrón ibaien arroetan.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak –arloko erakunde eskudunak– orain dela zenbait aste informatu zuen bukatuta zeudela uholdeek eragindako kalteak konpontzeko larrialdi-obrak, zeinek 2,5 milioi euroko inbertsioa egiten baitzuten Nafarroan, 48 esku-hartze eginda.

Nafarroako Gobernuak hiru foru agindu eman zituen –2015eko uztailaren 22ko 271, 272 eta 273–, zeinen bidez ezarri baitziren euste-dikeetan, eta ureztatze-azpiegituretan eragindako kalteak presaz eta geroratu gabe konpontzeko ohiz kanpoko laguntzak emateko arauak.

Hori dela-eta, Odrón ibaiari dagokionez, ondoko galdera hauek egin nahi dizkiogu Nafarroako Gobernuari:

1.- Zer udalek, ureztatze-sindikatuk edo/eta ureztatzaile-elkartek eskatu dituzte gertatutako kalteengatiko laguntzak?

2.- Zer jarduketa-motatarako eta zer zenbatekorengatik eskatu dira laguntzak?

3.- Nekazariek eta abeltzainek Gobernuari jakinarazitako kalteen kopurua, zenbatekoa eta herriak.

Corellan, 2015eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

# Galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Ebro ibaiari dagokionez.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Ebro ibaiari dagokionez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Alberto Catalán Higueras jaunak, Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2014ko azken hilabeteetan eta aurtengo lehenengoetan, euri-jasa luzeen ondorioz, uholdeak gertatu ziren Ebro, Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares eta Odrón ibaien arroetan.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak –arloko erakunde eskudunak– orain dela zenbait aste informatu zuen bukatuta zeudela uholdeek eragindako kalteak konpontzeko larrialdi-obrak, zeinek 2,5 milioi euroko inbertsioa egiten baitzuten Nafarroan, 48 esku-hartze eginda.

Nafarroako Gobernuak hiru foru agindu eman zituen –2015eko uztailaren 22ko 271, 272 eta 273–, zeinen bidez ezarri baitziren euste-dikeetan, eta ureztatze-azpiegituretan eragindako kalteak presaz eta geroratu gabe konpontzeko ohiz kanpoko laguntzak emateko arauak.

Hori dela-eta, Ebro ibaiari dagokionez, ondoko galdera hauek egin nahi dizkiogu Nafarroako Gobernuari:

1.- Zer udalek, ureztatze-sindikatuk edo/eta ureztatzaile-elkartek eskatu dituzte gertatutako kalteengatiko laguntzak?

2.- Zer jarduketa-motatarako eta zer zenbatekorengatik eskatu dira laguntzak?

3.- Nekazariek eta abeltzainek Gobernuari jakinarazitako kalteen kopurua, zenbatekoa eta herriak.

Corellan, 2015eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

# Galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Alhama ibaiari dagokionez.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Alhama ibaiari dagokionez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Alberto Catalán Higueras jaunak, Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2014ko azken hilabeteetan eta aurtengo lehenengoetan, euri-jasa luzeen ondorioz, uholdeak gertatu ziren Ebro, Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares eta Odrón ibaien arroetan.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak –arloko erakunde eskudunak– orain dela zenbait aste informatu zuen bukatuta zeudela uholdeek eragindako kalteak konpontzeko larrialdi-obrak, zeinek 2,5 milioi euroko inbertsioa egiten baitzuten Nafarroan, 48 esku-hartze eginda.

Nafarroako Gobernuak hiru foru agindu eman zituen –2015eko uztailaren 22ko 271, 272 eta 273–, zeinen bidez ezarri baitziren euste-dikeetan, eta ureztatze-azpiegituretan eragindako kalteak presaz eta geroratu gabe konpontzeko ohiz kanpoko laguntzak emateko arauak.

Hori dela-eta, Alhama ibaiari dagokionez, ondoko galdera hauek egin nahi dizkiogu Nafarroako Gobernuari:

1.- Zer udalek, ureztatze-sindikatuk edo/eta ureztatzaile-elkartek eskatu dituzte gertatutako kalteengatiko laguntzak?

2.- Zer jarduketa-motatarako eta zer zenbatekorengatik eskatu dira laguntzak?

3.- Nekazariek eta abeltzainek Gobernuari jakinarazitako kalteen kopurua, zenbatekoa eta herriak.

Corellan, 2015eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

# Galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Arga ibaiari dagokionez.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Arga ibaiari dagokionez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### GALDERAREN TESTUA

Alberto Catalán Higueras jaunak, Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2014ko azken hilabeteetan eta aurtengo lehenengoetan, euri-jasa luzeen ondorioz, uholdeak gertatu ziren Ebro, Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares eta Odrón ibaien arroetan.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak –arloko erakunde eskudunak– orain dela zenbait aste informatu zuen bukatuta zeudela uholdeek eragindako kalteak konpontzeko larrialdi-obrak, zeinek 2,5 milioi euroko inbertsioa egiten baitzuten Nafarroan, 48 esku-hartze eginda.

Nafarroako Gobernuak hiru foru agindu eman zituen –2015eko uztailaren 22ko 271, 272 eta 273–, zeinen bidez ezarri baitziren euste-dikeetan, eta ureztatze-azpiegituretan eragindako kalteak presaz eta geroratu gabe konpontzeko ohiz kanpoko laguntzak emateko arauak.

Hori dela-eta, Arga ibaiari dagokionez, ondoko galdera hauek egin nahi dizkiogu Nafarroako Gobernuari:

1.- Zer udalek, ureztatze-sindikatuk edo/eta ureztatzaile-elkartek eskatu dituzte gertatutako kalteengatiko laguntzak?

2.- Zer jarduketa-motatarako eta zer zenbatekorengatik eskatu dira laguntzak?

3.- Nekazariek eta abeltzainek Gobernuari jakinarazitako kalteen kopurua, zenbatekoa eta herriak.

Corellan, 2015eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

## Galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Ega ibaiari dagokionez.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Ega ibaiari dagokionez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Alberto Catalán Higueras jaunak, Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2014ko azken hilabeteetan eta aurtengo lehenengoetan, euri-jasa luzeen ondorioz, uholdeak gertatu ziren Ebro, Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares eta Odrón ibaien arroetan.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak –arloko erakunde eskudunak– orain dela zenbait aste informatu zuen bukatuta zeudela uholdeek eragindako kalteak konpontzeko larrialdi-obrak, zeinek 2,5 milioi euroko inbertsioa egiten baitzuten Nafarroan, 48 esku-hartze eginda.

Nafarroako Gobernuak hiru foru agindu eman zituen –2015eko uztailaren 22ko 271, 272 eta 273–, zeinen bidez ezarri baitziren euste-dikeetan, eta ureztatze-azpiegituretan eragindako kalteak presaz eta geroratu gabe konpontzeko ohiz kanpoko laguntzak emateko arauak.

Hori dela-eta, Ega ibaiari dagokionez, ondoko galdera hauek egin nahi dizkiogu Nafarroako Gobernuari:

1.- Zer udalek, ureztatze-sindikatuk edo/eta ureztatzaile-elkartek eskatu dituzte gertatutako kalteengatiko laguntzak?

2.- Zer jarduketa-motatarako eta zer zenbatekorengatik eskatu dira laguntzak?

3.- Nekazariek eta abeltzainek Gobernuari jakinarazitako kalteen kopurua, zenbatekoa eta herriak.

Corellan, 2015eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

# Galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Linares ibaiari dagokionez.

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, uholdeek eragindako kalteengatiko laguntzei buruzkoa, Linares ibaiari dagokionez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### GALDERAREN TESTUA

Alberto Catalán Higueras jaunak, Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

2014ko azken hilabeteetan eta aurtengo lehenengoetan, euri-jasa luzeen ondorioz, uholdeak gertatu ziren Ebro, Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares eta Odrón ibaien arroetan.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak –arloko erakunde eskudunak– orain dela zenbait aste informatu zuen bukatuta zeudela uholdeek eragindako kalteak konpontzeko larrialdi-obrak, zeinek 2,5 milioi euroko inbertsioa egiten baitzuten Nafarroan, 48 esku-hartze eginda.

Nafarroako Gobernuak hiru foru agindu eman zituen –2015eko uztailaren 22ko 271, 272 eta 273–, zeinen bidez ezarri baitziren euste-dikeetan, eta ureztatze-azpiegituretan eragindako kalteak presaz eta geroratu gabe konpontzeko ohiz kanpoko laguntzak emateko arauak.

Hori dela-eta, Linares ibaiari dagokionez, ondoko galdera hauek egin nahi dizkiogu Nafarroako Gobernuari:

1.- Zer udalek, ureztatze-sindikatuk edo/eta ureztatzaile-elkartek eskatu dituzte gertatutako kalteengatiko laguntzak?

2.- Zer jarduketa-motatarako eta zer zenbatekorengatik eskatu dira laguntzak?

3.- Nekazariek eta abeltzainek Gobernuari jakinarazitako kalteen kopurua, zenbatekoa eta herriak.

Corellan, 2015eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950